



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

PRENTSA OHARRA

## **Aldundiak metroaren 4. linearen lehenengo zatiaren eraikuntza proiektuaren lizitazinoa iragarri dau**

Bizkaiko Batzar Nagusien historiako kontroleko lehenengo osoko bilkuran, Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatu Vicente Reyes jaunak, ETS-k Bilboko Metroaren 4. linearen eraikuntza proiektua azaroan lizitauko duela iragarri dau, Moyuaraino doan lehenengo zatian, eta lizitazino horren zenbatekoa “1,3 milioi eurokoa” izango dala esan dau. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, gaur egun, Errekalde auzoan hasiko dan linea horri buruzko “informazio azterlanak egiten jarraitzen da”, eta gauza bera egiten ari da Etxebarritik Galdakaora helduko dan 5. linea.

Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuak, Bizkaiko Talde Popularrak, Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak, kargua hartzeko osokoan egindako adierazpenei buruzko eretxia eskatuz egindako erantzun-eskeari erantzunez egin dau iragarpena. Egun haretan esan eban agintaldi honetan Aldundiak “ez ebala inolango azpiegitura proiekturik egin behar”. Reyesek Javier Ruiz bozeroale popularrari argitu deutsonez, metroari jagokonez Aldundia “ez da geldituko”. Bizkaibus zerbitzuan inbertiduten dauenaz gain, Aldundiak egiten dauen esfortzu ekonomikoa balorau dau Reyesek, “35 milioi euro 2015ean eta 38,62 milioi euro 2016an”, Bilboko lur azpiko trenbidea eregitako lanak finantzetako, 2016an amaituta geratuko dan 3. linea, adibidez, edo Urdulizko trenbide pasagunea lur azpira sartzeko, beste batzuen artean.

Galdakao-Etxebarri lanzaderearen “gatazkeari” buruz galdetuta, Reyesek esan dau Galdakaoko biztanleak “pozik” dagozala Boluetara heltzen dan lanzaderearen bitartez Bizkaibus eskintzen ari dan zerbitzuagaz. Zerbitzu hori, lehen Aldundiak eskintzen ebanagaz alderatuta “erabiltzaile kopurua bikoizteko” aukerea emon dauen “konponbidea” da. Ganera, aurreko zerbitzuak gatazka handia eragin eban Etxebarriko udalerrian.

### EKARPENEN LEGEA

PP-ren eretxiz, Ahaldun Nagusiak Urkullu Lehendakariagaz izandako bileraren ostean adierazo ebanez, Ekarpenen Legea 2017ra arte aldatzeak ekarriko dauen “atzerapena” dala eta, Rementeriak esan dau kargua hartzeko hitzaldian inoiz ez ebala Lege hori eraginkorra izateko “denpora espaziorik” aittatu. Halanda be, uste dau bozeroale popularraren kalkuluak ez dirala guztiz okerrak, lehenengo Kupoaren likidazinoa egin arte itxaron beharko dalako, bere ustetan, “garrantzitsua” dalako aurretik jakitea Euskadik eta Bizkaiek zenbat diru eukiko dabentz. Beraz, uste dau gaitza izango dala Ekarpenen Legea datorren urtean prest egotea, hemendik aurrera ikusten diran hauteskunde prozesuak kontuan izanda.

Javier Ruiz PP-ko bozeroalearen eretxiz, kupoa eta Ekarpenen Legea ez dira zertan “batera” joan behar, azken lege horrek finantza baliabideak barrura begira banatzeten ditualako. PP-ko bozeroaleak “sine die” luzatuko dala uste dau, eta arduratuta agertu da Bizkaiko herritarrei bialtzen jaken mezua ikusita, Lege hori atzeratzean “Bizkaia Lakuatik gobernetan dala” uste dau eta.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

## LEGE EREMUA

Beste alde batetik, Ahaldun Nagusiak kargua hartzeko osoko bilkuran esandako beste berba batzuk ekarri ditu PP taldeak Gernikara: “euskaldunak izan gura dabena izango dira, eta horretarako legetasuna egokitu behar bada, egokitu egin beharko da”. Testuinguru horretan PP-ko bozeroaleak, Bizkaia, Spainia eta Europa barruko integratzinaren eremu komunean jarraitzea eta egotea bermatzen ahaleginduteko Unai Rementeriak aurrera eroango dauen politikari buruz galduen dauer. Javier Ruizen eretxiz, Bizkaia, Spainiak eta Europak, Euskadiaren garapenerako “segurtasuna, etorkizuna eta ziurtasuna” eskintzen daben “Champions Leagueko tridente” dira.

Rementeriak, gai horri buruz osoko bilkura haretan emon eban hitzaldiaren parte bat berreskuratu dauer. “Euskal abertzalea naz. Euskadien askatasuna gura dot, baina, beste ezer baino lehen, demokratea naz. Demokrata izatea idea anitzasuna eta nagusigoen esanahia onartzea da. Euskadi, euskaldunok erabagiten doguna izango da, inposizino barik. Eta legetasuna gehienen borondatera egokitzea beharrezkoa bada, hori egiten asmau beharko dogu. Hemen inor ez da inor baino gehiago. Inposizino barik. Beto barik”.

Horren ostean Ahaldun Nagusiak, esan gura izan ebana “danok batera” behar egin beharko dogula izan zala adierazo dauer, adostasunak eta kontentsuak bilatuz, Euskadi “hobeto enkajetako”. PP-ri gogoratu deutso hori dala, hain zuzen be, Eusko Legebiltzarreko Autogobernuko ponentzian egiten ari dana. Horregaitik, uste dauer PP taldea “foro okerrean dabilela” gai hori Batzar Nagusietan planteetako orduan. Argi eta garbi itzi dauer, baita be, Aldundiak “zorroztasun osoz” onartuko dauerlara araubide juridiko guztia, Europa eta Estatu mailakoa, eta baita Euskadi edo Bizkaia mailakoa be, Foru Aldundiaren eginbeharra lurrealdeko zerbitzu publikoak kudeeta dalako.

Ahaldun Nagusiak, Madrildik ponentzia horren garapenari trabak jarten ibiltea aurpegiratu deutso PP taldeari. Rajoyren gobernuak Eusko Legebiltzarretik egindako “txosten eskaera ukatu egin dauer”. “Eta gauza bera egin dauer Gasteizko Legebiltzarreko talde popularretik egindako txosten batzuekaz”. Salatu dauenez, PP taldea da lege eremua beteten ez dauena, Autonomia Estatutua bera ez danielako beteten, beste gauza batzuen artean. Ruizek hori ez dala egia esan dauer, bere eretxiz Euskadik European parekorik ez dauen autonomia maila daukalako, parte handi batean “80ko hamarkadatik egindako 107 transferentziei esker”.

## BIZITZA INDEPENDENTE PROGRAMEA

PP taldeak egindako erantzun-eskeari erantzunez Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatu andreak esan dauer “ez dala beharrezkoa izango” aholkulari pertsonalari jagokon prestazino ekonomikoaren partidea handitzerik, une honetan “burutzapena Aurrekontuagaz bat datorrelako”. “Ez izan zalantzarik, beharrezkoa bada, handitu egingo da”, erantzun deutso Eduardo Andrés popularrari, harek esan danielako kopuru hori ez dala handiagotzen onuradun potentzialek ez dabelako informazino egokirik jaso.

## MEXIKOKO ORDEZKARITZA BATEN BISITEA



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

Osoko bilkuraren ostean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak Mexikoko ordezkaritza bat jaso dau, Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Learning Tour programaren barruan. Ordezkaritza, industriagaz, hezkuntzagaz, I+G+b-agaz eta kanpoko harremanakaz erlazionautako arloetan erantzukizuneko karguak dituen bederatzi pertsonak osatu dabe.

Mexikoko ordezkaritzak argazkia atara dau Gernikako Arbolaren aurrean, Gernikako Batzarretxera bisitea egin eta Bizkaiko Batzarretako ohorezko liburuan sinatu eta gero. Ongi etorriko berbetan Ana Otaduik esan deutse etorkizunean “Mexikogaz, gure exiliatuak eta etorkinak hartu ebazan urruneko lur hategaz, lankidetzan jarraitu daikegula. Beti izango dau gure eskerrona”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

## NOTA DE PRENSA

# **La Diputación anuncia la licitación del proyecto constructivo del primer tramo de la Línea 4 del metro**

Gernika, a 30 de septiembre de 2015

En el primer pleno de control de la historia de las Juntas Generales de Bizkaia, el Diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha anunciado la licitación en noviembre, por parte de ETS, del proyecto constructivo de la Línea 4 del metro de Bilbao en su primer tramo hasta Moyua, por un importe de "1,3 millones de euros". El responsable foral ha indicado que, en la actualidad, "se siguen actualizando los estudios informativos" de esta línea que nacerá en el barrio de Rekalde y, también, de la Línea 5 cuyo trazado llegará a Galdakao desde Etxebarri.

El diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, ha hecho este anuncio en respuesta a una pregunta del grupo Popular Vizcaíno en la que se le solicitaba opinión sobre las declaraciones que hizo el Diputado General, Unai Rementeria, en el pleno de investidura cuando advirtió que la Diputación "no iba a abordar ningún gran proyecto de infraestructura" durante esta legislatura. Reyes ha dejado claro al portavoz popular Javier Ruiz, que en lo que respecta al metro, la Diputación "no parará". Además de lo que ya invierte en el servicio de Bizkaibus, Reyes ha valorado el esfuerzo económico que realiza la Diputación, "35 millones de euros en 2015 y 38,62 millones de euros en 2016" para financiar obras de ampliación del suburbano bilbaíno como la línea 3, cuyos trabajos concluirán a finales de 2016, o para soterrar el paso a nivel de Urduliz.

Interpelado también por el "conflicto" de la lanzadera Galdakao-Etxebarri, Reyes ha asegurado que los vecinos de Galdakao se muestran "satisfechos" con el servicio que Bizkaibus está ofreciendo a través de la lanzadera que llega a Bolueta. Este servicio es "la solución" que está permitiendo "duplicar el número de usuarios", con respecto al que ofrecía antes la Diputación y que generó una fuerte polémica en el municipio de Etxebarri.

## LEY DE APORTACIONES

Sobre el "retraso" –según el PP– de la modificación de la Ley de Aportaciones hasta el año 2017 confirmada, a juicio de los populares, por el Diputado General tras la reunión mantenida con el lehendakari Urkullu, Rementeria ha señalado que, en ningún momento, llegó a mencionar en su discurso de investidura un "espacio temporal" sobre cuándo podía ser efectiva dicha Ley. Aún así, cree que no va desencaminado puesto que primero hay que esperar, a su juicio, a la liquidación del Cupo, ya que es "importante" que tanto Euskadi como Bizkaia conozcan primero el disponible. Augura, por tanto, que será difícil que haya Ley de Aportaciones el año próximo a tenor de las futuras contiendas electorales.

Para el portavoz del PP, Javier Ruiz, el cupo y la Ley de Aportaciones no tienen por qué ir "en paralelo" ya que esta última ley distribuye a nivel interno los recursos financieros. Cree que se



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

dilatará "sine die" y le preocupa el mensaje que se lanza a la ciudadanía vizcaína al entender que "Bizkaia se gobierna desde Lakua" al posponerse esta Ley.

#### MARCO LEGAL

Por otro lado, el PP ha traído a Gernika otras palabras del Diputado General del pleno de investidura: "los vascos serán lo que quieran ser y que si hay que acomodar la legalidad, se tendrá que hacer". En este contexto, el portavoz del PP ha preguntado por la política que va a desarrollar Unai Rementeria para intentar garantizar la permanencia y pertenencia de Bizkaia a un marco de integración común dentro de España y de Europa, "un tridente de Champions League" que ofrece "seguridad, futuro y certidumbre" para el desarrollo de Euskadi, según Javier Ruiz.

Rementeria ha recuperado la parte del discurso que pronunció sobre el tema en aquel pleno. "Soy nacionalista vasco. Quiero la libertad de Euskadi, pero ante todo soy demócrata. Demócrata es asumir la pluralidad de ideas y el sentido de las mayorías. Euskadi será lo que los vascos y vascas decidan que sean, libremente, sin imposiciones. Si es preciso acomodar la legalidad a la voluntad mayoritaria, tendremos que acertar a hacerlo. Aquí nadie es más que nadie. Ni imposiciones, ni vetos".

El Diputado General ha señalado, a continuación, que lo que quiso decir es que "todos" debemos trabajar "de forma conjunta", buscando consensos y acuerdos para conseguir un "mejor encaje" de Euskadi. Ha recordado al PP que esto es precisamente lo que se está haciendo en la ponencia de Autogobierno del Parlamento Vasco. Por esto, cree que el PP "se equivoca de foro" a la hora de plantear este tema en las Juntas Generales. Ha dejado claro también que la Diputación va a acatar "de manera escrupulosa" toda la normativa jurídica, tanto europea y estatal, como vasca o vizcaína, ya que a la Institución foral le corresponde gestionar los servicios públicos del territorio.

El Diputado General ha afeado al PP que desde Madrid se esté poniendo trabas al desarrollo de esta ponencia. El gobierno de Rajoy "ha denegado la solicitud de informes" realizados desde el Parlamento Vasco, "incluso, algunos, solicitados desde el grupo popular en la Cámara de Gasteiz". Ha denunciado que es el PP el que incumple el marco legal al incumplir el propio Estatuto de Autonomía, entre otras cosas, extremo que ha negado Ruiz que piensa que Euskadi goza de una autonomía única en Europa, en parte gracias a las "107 transferencias realizadas desde los años 80".

#### PROGRAMA DE VIDA INDEPENDIENTE

A pregunta del PP, la diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha sostenido que "no será necesario" aumentar la partida de la prestación económica de asistente personal, ya que, en estos momentos, "la ejecución está alineada con el Presupuesto". "No tenga duda de que si fuera necesario, se ampliará", le ha contestado al popular Eduardo Andrés que ha llegado a insinuar que este montante no crece debido a que los potenciales beneficiarios no han recibido la información suficiente.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

## VISITA DE UNA DELEGACIÓN MEXICANA

Tras el pleno, la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha recibido a una delegación mexicana dentro del programa Euskadi Learning Tour del Gobierno Vasco, formada por nueve personalidades con cargos de responsabilidad en sus correspondientes campos de actuación ligados a la industria, la educación, I+D+i y relaciones exteriores, entre otros.

La delegación mexicana ha posado en el Árbol de Gernika después de visitar las dependencias de la Casa de Jutas de Gernika y de firmar en el libro de honor del Parlamento vizcaíno. En sus palabras de bienvenida, Ana Otadui les ha dicho que en el futuro “podremos seguir colaborando con México, aquella lejana tierra de acogida para nuestros exiliados y emigrantes a la que siempre estaremos agradecidos”.